

IKUSMIRAN²²

Nafarroako langileriaren
lan eta bizi baldintzak

2025eko AZAROA

22

Ikusmiran 22 | 2025eko azaroa

Nafarroako langileriaren lan eta bizi baldintzak

Bilatzailea

Sar Hitza	4
NAFARROAKO PREKARITATE INDIZEA %48,5koa DA.....	6
Nafarroako 25 eta 64 urte arteko (ia) bi nafarretik bat prekaritate egoeran bizi da	6
LAN-BALDINTZAK	7
Biztanleria aktiboa handituz doa, inaktibo kopuruak handitzen jarraitzen duen arren.	7
Langabeziak beheranzko joerari eusten dio; gazteen artean, ordea, igo egin da.	8
Erregistraturiko langabeziak beherantz jarraitzen badu ere, industrian gorakada txiki bat atzematen hasi da.	9
Zerbitzu sektoreak gero eta afiliatu gehiago ditu	10
2022ko lan erreformaren ondorioek egungo kontratazio politikan isla dute.....	12
Enplegu Erregulazioan dauden nafarren kopuruak gora egin du	13
Ekintza sindikala eta Lan Harremanak	15
Lan hitzarmenak eta gatazka kolektiboak	16
Kapital eta lan errenten arteko arrakala	17
Soldata arrakalek egiturazkoak izaten jarraitzen dute	17
BIZIBALDINTZAK	18
Soldaten pisua BPGean gero eta txikiagoa da.....	18
Bizitzaren garestitzea eta erosahalmena.....	18
Aberastasunaren banaketa.....	22
Etxebizitza eskubidea, eskubide izatetik gero eta urrunago.....	25
NAFARROAKO ESKUALDEEI BEGIRADA	27
Nafarroako batez besteko soldata gordinetik behera kokatzen dira eskualde guztiak, Leitzaldea eta Iruñerria izan ezik.....	27
Soldata arrakala, sexu-generoari dagokionean.....	27
Pobrezia arriskua eskualdeka	28
Desberdintasun sozialak, lurraldearen arabera (GINI eta s80/s20)	29

Sar Hitz

Esku artean duzuen, Nafarroako langileen lan eta bizi baldintzen azterketa da, 22. Ikusmiran. Lurraldearen ezaugarri propioak kontuan izanik azterketa espezifikoak egiteak garrantzia beti duen arren, Nafarroako hainbat joera sozioekonomiko Hego Euskal Herrikoekiko ezberdinak direla ikusi dugu. Lurralde guztien errealitateak nazio ikuspegia bermatzen du eta herri gisa egin beharreko eraldaketaren norabidea definitzen laguntzen digu. Era berean, lurralde bakoitzak egin beharreko bidearen nondik norakoak zehaztea ere garrantzitsua da, eta horretan, azterketa espezifikoak begirada fokuratzen laguntzen du, gure ekinbide soziosindikala eraginkortuz.

Beraz, Nafarroako langileen errealitatearen ahalik eta argazki osatuena egitea izan da lan honen ahalegina, herri gisa dugun ikusmira galdu gabe.

Jarraian, ONDORIO NAGUSIAK dituzue:

1. Nafarroako 25 eta 64 urte arteko herritarren %48,50a prekaritate egoeran bizi da, bizitza duina bermatzeko diru-sarrera nahikorik gabe, enplegua eduki arren.
 - Langabeziak beherazko joerari eusten dion arren, herrialdearen etorkizuna bermatzeko funtsezkoak diren eremuetan gora egiten ari da. Modu honetan, gazteen artean langabezia igo egin da eta industria sektorean enplegua suntsitzen ari da.
 - Bestalde, lan-baldintza ezegonkor zein prekarioen nagusitzea ezaugarri duen zerbitzu sektorea haziz doa eta erregimen orokorrean afiliaturikoen %66,56ra heldu da (2024ko azken eguneko datuak dira). Beraz, esan dezakegu sortzen ari den enpleguak lan baldintza prekarioagoak dituela edota suntsitzen den enpleguaren lan baldintzak ez direla lehengoratzten ari.
 - Lan erreformaren ondorioek kontratazio politikan inpaktu zuzena dute, kontratu finkoak igo arren, aldizkako kontratu finkoen bidez prekaritate/ezegonkortasun egoera iraunarazi nahi baitu patronalak.
 - Gero eta nafar langile gehiago dago Enplegu Erregulazio Espediente baten eraginpean. 2024. urtean 28.000 langile baino gehiagok kontratua eteteko espediente bat jasan zuten, aurreko urtean baino 5.000 langile gehiagok. Datuetan islatzen hasi den errealtate honek Nafarroa osoaren, eta, modu nabarmenean, hainbat eskualderen etorkizuna arriskuan jartzen du.
 - Ondorioz, esan dezakegu enpleguaren kalitate orokorraren jaitsiera, enplegu galeraren arriskuaren hazkundera eta prekaritatearen hedapena nabarmen ageri direla nafar langileen egoeraren ezaugarri gisa.
2. Nafarroako batez besteko soldata igo arren, desberdintasun sozialak handitu egin dira herrialdearen barnean, aberastasuna modu orekatuan banatzen ez denaren ondorio argia.
 - Soldatek gero eta pisu gutxiago dute BPGrekiko, aberastasuna sortu arren, modu desorekatuan birbanatzen baita. Langileok geure lanarengatik jasotzen dugun soldata gero eta txikiagoa da ekoizpenarekiko, enpresarien mozkinen handitzearen erakusle.
 - Batez besteko soldata igotzearen arrazoien artean, pisu handia du Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren igoerak. Era berean, sexu-genero arrakalak soldata guztiak zeharkatzen baditu ere, adinaren, jatorriaren edota kontratu motaren arabera soldata arrakalak egiturazkoak dira.
3. Nafarroan, desberdintasun adierazleak inoizko balio altuenetan daude, desberdintasun sozial egoerak areagotu egin baitira. Era berean, pobrezia arriskuak gora egin du herrialdean: Nafarroako biztanleen %17,2a pobrezia arriskuan dago, 115.728 nafar, hain zuzen ere.
4. Langileon soldata gordinaren gero eta proportzio handiagoa etxebizitza gastuetara bideratzen dugu, gure bizitzen prekarizazioaren eragile nagusienetakoa bilakatu.
 - Etxebizitza prezioek (jabetzan zein alokairuan) igoera esponentziala izan dute azken hamarkadan.
 - 2023an, nafarrek, batez beste alokairura soldata gordinaren %38,4a bideratzen zuten, emakumeen* kasuan proportzioa %42,4ra igotzen da.
5. Osasun zerbitzuetan itundutako jarduerak %80,4ko hazkundera izan dute 2019. urtetik, jarduera propioak %7,9 murriztu diren bitartean. Osasun sistemaren merkantilizazio zein pribatizazio prozesuak ez du etenik. Izan ere, osasun larrialdiaren aitzakiarekin harturiko erabakiak egiturazkoak bilakatu dira eta osasun zerbitzu publikoa ahulduz doa.
6. Nafarroan zonaldeen arteko ezberdintasunak handitzen ari dira.
 - Horren adierazle da Leitzaldea eta Iruñerria izan ezik, gainerako eskualde guztiak Nafarroako batez besteko soldata gordinaren azpitik kokatzen direla.
 - Lurraldearen barneko aberastasunaren banaketa desorekatu honek desberdintasun sozialak ere areagotzen ditu. Izan ere, lurraldearen beste aldean (Tutera eta Erriberanabarmen) kokatzen dira pobrezia arrisku tasarik altuenak.

NAFARROAKO PREKARITATE INDIZEA %48,5koa DA

Nafarroako 25 eta 64 urte arteko (ia) bi nafarretik bat prekaritate egoeran bizi da

Lan merkatuaren errealitatearen ezagutza ahalik eta osatuena izateko, ikusmira langabeziaren azterketatik zabaltzeko beharra dago. Izan ere, gero eta herritar gehiago lanean egon arren, sortzen ari den enpleguaren oinarriak gero eta prekarioagoak zein ezegonkorragoak dira. Azken urteetako joera egiturazkoa bilakatzen ari da, sortzen den enpleguak ez ditu ordezkatzeko suntsitzen den enpleguaren lan baldintzak, prekarizatu baizik.

PREKARITATE INDIZEA NAFARROAN (2022-2023)		
	2022	2023
Langabeak 25 urtetik gora	26.800	27.000
Inaktiboak (25tik gora- pentsionistak)	66.100	62.500
Diru sarrerak 1628€>	98.900	90.500
PREKARIOAK	191.800	180.000
PREKARITATE INDIZEA	51,7	48,5


Iturria: EPA

Prekaritate Indizearen azken neurketatik proportzioa zertxobait jaitsi da Nafarroan. Indizea osatzen duten adierazleen joera Hego Euskal Herri osokoen ezberdina da. Izan ere, langabe kopurua igo da, inaktiboena jaitsi da eta LAB sindikatuak aldarrikatzen duen LGS (1.600 €) baino soldata baxuagoa jasotzen duten langileen kopurua ere jaitsi da. Beraz, Nafarroako Prekaritate Indizea %48,5ean kokatu da.

6

Langile kopuru horri pentsionistak gehitu behar zaizkio. Izan ere, Nafarroako pentsionisten %38,01ak indarrean dagoen LGSren-1.184 €- besteko pentsioa edo baxuagoa jasotzen dute, horietatik %65,42a emakumeak* direlarik (handituz doan proportzioa). Pentsio arrakala ere egiturazkoa da, emakume* pentsionisten %51,4ak 1.184 €ko pentsioa edo baxuagoa jasotzen baitu, eta gizonezko pentsionisten artean %25,4ak jasotzen du kopuru hauetako pentsioa. Pentsionisten gehiengoa LGS eta gehieneko pentsioaren (3.267,60 €) artean kokatzen denez, pentsatzekoa da asko 1.600 €tik behera kokatuko liratekeela, baina ezin dugu kopuru zehatza jakin.

PENSIONISTA KOPURUA, PENSIOAREN ZENBATEKOAREN ARABERA (NAFARROA, 2025EKO ABUZTUAK 1)




Azterketa lan honetan ikusiko dugunez, Nafarroan batez besteko soldata igo da azken urtean, baina desberdintasun sozial zein pobrezia egoerak handitzen ari dira. Hortaz, sortzen den aberastasuna gero eta modu desorekatuagoan banatzen da, lurralde barneko ezberdintasunak areagotuz. Nafarroako langileon errealitatea ezagutzeko, lan- eta bizi-baldintzatan jarri dugu arreta, ikusmira ahalik eta osatuena lortzeko helburuarekin.

LAN-BALDINTZAK

Biztanleria aktiboa handituz doa, inaktibo kopuruak handitzen jarraitzen duen arren.


2022 urtetik lan bila edo lanean ari den langile kopuruak gora egin du. Zentzu honetan, 2025ko 2. hiruhilekoan 19.100 langile gehiago zeuden lanean Nafarroan, hauetatik 8.000 emakumeak* eta 11.100 gizonak. Lanera inkorporatu diren langileen artean, gorakada handia izan du Espainiako Estatutik kanpo lan egitera etorri diren langileen kopuruak eta etxeko lanetara emanda zeuden emakumeenak*, aurretik inaktibo gisa zeudenak.



Inaktiboaren artean, azpimarratu nahi dugu etxeko lanetara emanda zeuden emakume* asko lan merkatura sartu direla azkenaldian. Ordura arte zaintza lanetan ziharduten emakumeak* dira, bizitzaren garestitzearen ondorioz eta bizi unitatearen egoera prekarioak bultzatuta, lan merkaturako trantsizioa egin dutenak. Etxeko lanen ardura nagusia bizkar gainetik kendu gabe, lan-baldintza prekarioak eskaintzen dizkien lan merkatura igaro dira, prekaritate bikoitza pairatuz.

Bestalde, gora egin du jubilatutik diren eta ikasten ari diren inaktiboaren kopuruak. Hala ere, urteroko 3. hiruhilekoan ikasleak diren inaktiboaren kopurua jaitsi egiten da, udako oporraldietan lan egiten dutelako. Biztanleria zahartzen ari da eta gero eta jubilatutik gehiago egongo dira, piramide demografikoa irauliz. Ondorioz, gero eta zailtasun gehiago izango dugu biztanleria inaktibo eta aktiboaren arteko oreka mantentzeko.


INAKTIBO ARRAZOIAK NAFARROAN (2022-2025)



Langabeziak beharazko joerari eusten dio; gazteen artean, ordea, igo egin da.


Langabezi tasa aztertzerakoan bi datu izan behar ditugu kontuan; alde batetik, lan merkatuan zenbat langilek parte-hartzen duten; eta bestetik, lan bila daudenak eta lanean ari direnak.

LANGABEZIA TASA NAFARROAN (2006-2024) URTEKO BATAZ BESTEKOAK



2024 urteko azken hiruhilekoan langabezia tasa orokorra %6,59ra jaitsi zen. Osasun larrialdi egoerako epealdia salbu, 2013 urtetik langabezi tasa jaisten ari da. Biztanle Aktiboaren Inkesta eskuetan, hurrengo xehetasunak eman ditzakegu:


- Emakumeen* eta gizonen artean langabeziak behera egin du, hurrenez hurren %7,66an eta %5,68ean kokatuz.
- Migratuen artean langabezia %15,87ra jaitsi da.
- Gazteen artean ordea, langabeziak gora egin du, %22,08ra helduz.



Aurreko urtearekin (2023) alderatuta, lan merkatuak lana sortzen jarraitzen du, baina ez da egiturazko aldaketarik egon eta hainbat joera mantentzen dira (migratu edota gazteen langabezia altua, esaterako). Era berean, emakumeen* langabeziak behera egin arren, kezkarria izaten jarraitzen du inaktiboaren artean dagoen emakumeen* proportzio handia (%44,42). Moltzo honetan inolako aitortza ekonomiko, sozial edo politikorik gabe etxeko lanetara emanda dauden milaka emakume* kokatzen dira, bizitza sostengatzeko ezinbesteko lanak egin arren, lan merkatuak kanpoan uzten dituenak.


Erregistraturiko langabeziak beherantz jarraitzen badu ere, industrian gorakada txiki bat atzematen hasi da.

2 025eko abuztuan erregistratutako langabezia aurreko urtekoarekin alderatzen badugu, 1.017 langatu gutxiago daude. Orokorrean gorabeherak izan diren arren, estatu mailako Enplegu Zerbitzu Publikoan izena emanda duten langileen kopuruak beherantzko joera mantentzen du Nafarroan.



Azken urteetan sektore guztietan jaitsi da langabezia. Azken urtean, ordea, industria sektorean langabeziak gora egin du apurka-apurka. Industria sektoreak ez du gaitasunik sektore honetan lan egin nahi duten langile guztiei lana emateko gaur egun. Era berean, tentuz aztertu beharko da azkenaldian indarrean sarturiko Enplegu Erregulazio Espedienteengatik langabezia jaistearekin batera, afiliazioa jaisten hasten den edo sektoreak lan eskaintza handitzeko gaitasuna berreskuratzen duen, duela gutxi arte bezala.

ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA SEKTOREKA NAFARROAN (2024-2025)




Iturria: Guk egina, SEPEren datuetatik.

Zerbitzu sektoreak gero eta afiliatu gehiago ditu


Gero eta langile gehiago daude afiliatuta gizarte segurantzaren erregimen orokorrean. Alde batetik, maximo historikoetan aurkitzen gara, aurtengo abuztuko azken egunean 257.523 afiliatu baitzeuden. Eta bestetik, zerbitzu sektorean (171.064 afiliatu) eta industrian (72.840 afiliatu) afiliazio kopuru historikoak eskuratu ziren.

Afiliazioa sektoreka aztertzen badugu, zerbitzu sektoreak garrantzia irabazten jarraitzen duela ikus dezakegu. Gainerako sektoreetan lana sortzen ari den arren, honek ez du hainbesteko inpakturik. Hala ere, aipatu nahi dugu, industria sektoreko afiliazioa maximo historikoetan egon arren, afiliazioaren osaketan zuen garrantzia minimoetan dagoela: 2009an afiliazioaren %29,9a industria sektorekoa zen bitartean, 2024ko abenduan %28,35a baitzen.

ERREGIMEN OROKORREKO AFILIZAZIOA SEKTOREKA NAFARROAN (2024, %)




Iturria: TGSS, guk egina



Kontratu motaren arabera afiliazioaren proportzioa aztertzen badugu, 2022ko lan erreformak izandako ondorioak ikus ditzakegu. 2023 urtearekin aldageta esanguratsurik ez da gertatu eta badirudi proportzio berrietan egonkortu direla kontratu motak.


- Kontratu mugagabeen proportzioak gora egin du nabarmen, behin-behinekoena jaitsi den bitartean.
- Aldizkako kontratu finkoen proportzioa bikoiztu egin da, kontratu mugagabeen kopurua handituz, nahiz eta kontratu hau ezengonkorragoa izan.



Emakume* eta gizonen artean eragin eta ondorio ezberdinak izan ditu:

- Emakumeen* artean %43,7ak besterik ez du kontratu mugagabea jardunaldi osoan, eta kontratuen %20,7 behin-behinekoak dira.
- Lau emakumetik* batek (%25,6ak) jardunaldi partziala dauka.

AFILIAZIO-EHUNEKOA, KONTRATU MOTA ETA SEXUAREN ARABERA




Iturria: Espainiako Estatuko Gizarte Segurantzza
 *Datu hauek Erregimen Orokorrean afiliaturiko langileenak dira
 (nekazaritza eta etxeko langileen erregimen bereziak ez ditugu barneratu)

2022ko lan erreformaren ondorioek egungo kontratazio politikan isla dute.


2 020 urtetik hona hilabetero Erregimen Orokorreko Nafarroako afiliazioaren baja arrazoiak aztertzen baditugu, agerian geratzen da patronala zein tresna erabiltzen ari den azken lan erreformaz geroztik. Behean duzuen grafikoan ikus daitezke 2021 urtetik hona hilabetez hilabete ematen diren batzaz besteko afiliazio bajak. Lan erreforma aurretik behin-behineko kontratuen bitartez egiten zena, kontratu bukaerarekin, gaur egun "kontratu mugagabe" moduan definituta daudenekin egiten da. 2021 urtean 1.500 afiliazio baja egoten ziren batzaz beste hilabetero, gehienak behineko behineko kontratu bukatzeagatik (marra horia urdinetik oso hurbil), lan erreformaren ondoren hilabetero mantendu da afiliazio baja kopurua batzaz beste, baina kontratu mugagabeen artean baja kopuruak gora egin du eta behin behinekoen artean behera.

AFILIAZIO BAJAK KONTRATU MOTAREN ARABERA (NAFARROA 2021-2024)




Afiliazioari baja emateko arrazoi nagusia aldizkako kontratu finkoak dituzten langileen bajak dira, nabarmen gora egin dutenak. Era berean, probaldia ez gainditzeagatik jazotzen diren bajak edota borondatezko bajak gora egin dute. Hiru arrazoi hauek dira afiliazioan baja ematearen arrazoiaren %75a.

Hurrengo grafikoan, kontratu mugagabeen kasuan bajak gauzatzeko arrazoiak azaltzen dira. Alde batetik, aldizkako kontratu finkoen etetea dago, arrazoiaren %20a izatetik %50a izatera igaro dena. Bestalde, probaldia ez gainditzeagatik jazo diren bajen kopurua ia bikoiztu egin da. Amaitzeko, borondatezko bajak arrazoiaren %20o izaten jarraitu dute, baina gogora dezagun, kontratu mugagabeen artean afiliazio bajak nabarmen igo direla.



Hurrengo grafikoan argi ikusten da azken lan erreformarekin egiten ari diren iruzurrak ez duela etenik. Izan ere, probaldia ez gaitziteagatik gero eta langile gehiagori lan kontratua ematen zaio. Lan erreforma indarrean sartu denetik, probaldia ez gaitziteagatik hilabeteen 80 kontraturik ematen zaie baja, erreforma aurretik hilabeteen 10 inguru ziren bitartean. Jarraian dagoen grafikoan gorakada handi hau oso argi ikus daiteke.




Enplegu Erregulazioan dauden nafarren kopuruak gora egin du

Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzak ematen dituen datuen arabera, azken urtean gora egin du enplegu erregulazioan dauden langile kopuruak Nafarroan. Jasotzen ditugun datuetan hutsune batzuk daude egoeraren argazki osatuagoa lortzeko, baina etor daitekeen egoeraren aurrerapena izan daiteke.

Aipatu dugu Enplegu Zerbitzu Publiko espainiarrean erregistratutako langabezia behera egiten ari dela eta afiliazioa gora, baina badira langileak Enplegu Erregulazio Espedienteen eraginpean direnak, lan-kontratupean jarraitzen dutenak.


Hurrengo grafikoan ikus dezakegu COVID garaian, 2020. urteko daturik ez dugun arren, espediente kopuruak gora egin zuela, eta 2023 urtera arte gero eta langile gutxiago zirela espediente hauen eraginpean zirenak; baina azken urtean gora egin duela, nahiz eta ez den sektore guztietan eman den egoera bat. Azken urteko gorakada emanufaktura-industrian dagoen egoeragatik izan da.

ENPLEGU ERREGULAZIOA NAFARROAN (2015-2024)




Espediente mota guztiak behera egiten ari ziren 2022 eta 2023 urteetan, baina azken urtean berriz ere gora egiten hasi dira. 2024an aurreko urtean baino 22 langile gehiagori eragin zieten kaleratze kolektiboko espedienteek (hauek bai, langabezian zenbatzen dira). Kezkagarria da 28.000 langile baino gehiagok kontratua eteteko espediente bat jasan zutela 2024 urtean, aurreko urtean baino 5.000 langile gehiagok.

ENPLEGU ERREGULAZIOAN DAUDEN LANGILEAK (NAFARROA, 2021-2024)



Espediente hauek aztertzeko beste ikuspegi bat enpresek ematen dituzten arrazoiak aztertzea da. Azken urteetan Enplegu Erregulazio Espediente bat martxan jartzeko produkzio-arrazoiak nagusitu arren, azken urtean antolakuntza-arrazoiak edota teknikoek gora egin dute nabarmen, gehiengoak produkzio arrazoiak izaten jarraitu arren.

EEERAKO ENPRESAK EMANDAKO ARRAZOIAK (NAFARROA, 2023-2024)



Enpresaren tamainari erreparatuta ikus daiteke enpresa txiki eta ertainetan kopuruak behera jarraitzen duela. Aldiz, 250 langiletik gorako enpresetan gero eta langile gehiagori eragiten die, 5.000 langile baino gehiagoko enpresetan salbu.

Momentuz, tresna honen bitartez ohikoak diren lan merkatuaren azterketetan ez da kezkatzeko daturik aurkezten, baina industrian langile askori eragiten dien egoera bat da, ziurgabetasun egoera sortzen duena. Ezagunak ditugu Sunsundegi (341 langile), BSH (655 langile) edota duela gutxi jakinarazi den Saint Gobain Arboc (45 langile), non ehunka langile kaleratzeko arriskuan dauden. Ekintza sindikalaren bidez egiten ari garen bezala, datuekin ere hurbileko jarraipena egingo diegu.

Ekintza sindikala eta Lan Harremanak

2 2024-25ikasturtean Nafarroan 76 gatazka aktibatu ziren, eta horietatik 19tan greba izan zen mobilizazio tresna. Gatazken gehiengoak negoziazio kolektiboa eta zerbitzu publikoen defentsa izan dituzte ardatz. Era berean, industrian borrokatzeko zein mobilizatzeko arrazoi garrantzitsuena patronalaren aldetik etorritako erasoei aurre egitea izan da, kaleratze zein itxierak hartu dute lekuri nabarmenena aktibazioa ekarri duten erasoen artean.


LAN GATAZKAK NAFARROAN, 2023 -2024 IKASTURTEA				
	2022/23	2023/24	2024/25	Ehtik zenbat Nafarroakoak
Orokorrean	48	40	38	18,6
Feminizatuak	10	6	12	21,1
Grebak	202	14	19	25,3
Itxita	25	20	7	9,1

Lan hitzarmenak eta gatazka kolektiboak


Estaldura tasa aztertzerako orduan, lehenik eta behin, ohartarazi behar dugu publikoak diren azken datuak (2023, 2024 eta 2025.ekoak) behin behinekoak direla. Era berean, azterketa lan honetan jakinarazi nahi dugu, urteetako aldarrikapen politikoaren ondoren, lan harremanei buruzko azterketa osatuago bat egingo duela NASTATEk (adibidez, sektore mailako hitzarmenak neurtuko dituzte). Ordura arte, esku artean ditugun datuekin jarraituko dugu.

Nafarroan, enpresa gainditzen duten hitzarmen kopurua da nabarmen nagusitzen dena eta langile kopuru altuena babesten duena.

HITZARMEN KOLEKTIBO ETA ERAGINPEKO LANGILE KOPURUAREN BILAKAERA
(NAFARROA, 2008-2025)




HITZARMEN KOLEKTIBO ETA ERAGINPEKO LANGILE KOPURUAREN BILAKAERA
(NAFARROA, 2008-2025)




Kapital eta lan errenten arteko arrakala

Esku artean ditugun azken datuen arabera, 2023an Nafarroan batz besteko soldata igo egin zen, bereziki soldata baxuenak jasotzen dituztenen artean (pertzentil apalenak edota aldi baterako kontratua dutenen artean) edota jaitsiera lausoagoa izan zen beste kolektibo batzuetan (estatutik kanpokoan artean, kasu). Igoera honetan zerikusi handia izan du LGSren igoerak, soldata baxuenen batez bestekoen neurketan inpaktu handia izan duelarik.



Soldata arrakalek egiturazkoak izaten jarraitzen dute


Batez besteko soldataren igoerak ez du arrakalen amaiera ekarri, ezta arrakalen txikitzea ere. Jarraian agertzen den grafikoan ikus daitekeen bezala, soldata altuenek goranzko joera nabarmenari heltzen dioten bitartean, gazteen edota emakumeen* soldata ez da proportzio berean igotzen. Sexu-genero arrakala soldata guztietan aurkitzen badugu ere, adinaren, jatorriaren edota kontratu motaren arabera soldata arrakalak egiturazkoak dira.



BIZIBALDINTZAK

Soldaten pisua BPGean gero eta txikiagoa da

Soldatek gero eta pisu txikiagoa dute BPGean (%42,6a). Egun Europar Batasuneko portzentaiaren ia 5 puntu azpitik daude. Nafarroan 2010. urtetik soldatek BPGean duten pisuak beheranzko joera izan du, pandemiak 2020. urtean eragindako ez-ohiko datuak salbuetsita. 2010-2023 urteen arteko alderaketa eginez gero, jaitsiera %7,1ekoa izan da Nafarroan, Espainiako estatuan %2,65ekoa izan den bitartean eta Europar Batasunean %0,21ekoa. Beraz, soldatek BPGarekiko duten pisua berreskuratu ezinik, Nafarroan egoniko jaitsiera oso nabarmena izan da.




2025. urtean, BPGa %2,2 igo da lehen hiru hilekoan¹; hortaz, aberastasuna sortzen da, baina lan errentek gero eta pisu txikiagoa dute honetan. Sortzen den aberastasunaren banaketa gero eta desorekatuagoa dela ondorioztatu dezakegu, langile klasearen lan errentek gero eta proportzio txikiagoa suposatzen baitute.

Bizitzaren garestitzea eta erosahalmena

- Udan KPIren gorakada jazo da. 2025. urte hasieran izaniko balioak udaberrian jaitsi arren, udan goranzko joerari heldu dio berriro ere KPIk, eta %2,7koa izan da uztailan Nafarroan. 2021. urteko balioetatik urrun eta oso goitik kokatzen da. Ondorioz, bizitzaren garestitzea bere horretan mantentzen da.

KONTSUMO PREZIOEN INDIZEA (NAFARROA, 2021-2025)





- **Erosketa saskia gero eta garestiagoa da.** KPIren igoera edo jaitsiera oinarrizko produktuek duten prezioaren gainean aplikatzen dela birgogoratzea garrantzitsua da testuinguru sozioekonomiko honetan. Ogiaren kasuan, adibidez, 2024ko abenduan, aurreko urtearekiko %1,6ko igoera izan zuen, baina kontuan hartu behar dugu 2020. urtetik aurrera KPIk izaniko igoera esponentzialari gehitu behar zaiola. Modu honetan, ogia %24,1 garestitu da 2020. urtetik, ardi-haragia %35,6 edota olio eta koipeak %110,3. Olio eta koipeen kasuan, 2024. urtean prezioak %10,3 merketu arren, 2020. urtetik pilatutako garestitzea nabarmen handiagoa izan da eta hori da herritarrok nabaritzen duguna.

EROSKETA SASKIAREN GARESTITZEA, NAFARROA		
	2020.ko abendutik metaturiko KPI	2024 urteko KPIa
Ogia	24,1%	1,6
Behi haragia	37,0%	9,5
Ardi-haragia	35,6%	8,0
Arrain fresko eta kongelatuak	29,0%	6,9
Arrautzak	57,6%	-1,3
Esnea	40,2%	-2,3
Esnekiak	27,6%	-0,8
Olioak eta koipeak	110,3%	-10,3

Iturria: guk egina, INEren datuetatik abiatuta


- **Soldaten eguneratzeaeta KPIrena ez dira maila berean jazo.** Grafiko(et)an ikusten den bezala, KPIa baxua zenean soldaten igoera goitik adostea ohikoa zen. Aldiz, 2020. urteko super-inflazioan, soldatak oso behetik eguneratu ziren, bizitza garestitu zena baino proportzio txikiagoan. Azken bi urteetan, ekintza sindikalean KPIren arabera soldata igoerak izaniko zentralitatearen ondorioz, zertxobait goitik eguneratu dira. Hala ere, arestian esan bezala, metatutako KPI kontuan izanik, langile klasearen egoera ez da lehengoratu, soldata igoerak ez direlako KPIren besteko igoerara iritsi, eta erosahalmena berreskuratu ezinik jarraitzen dugu, honen galera txikitu bada ere.

SOLDATA IGOERAK ETA KPIAREN BILAKAERA NAFARROAN (2018-2024)




- **Pentsioak ere KPIren igoerara heldu ezinik.** Pentsioen kasuan, egoera antzekoa da. Izan ere, bereziki KPI baxua zen urteetan pentsioak goitik eguneratu ziren. Aldiz, inflazio handiko garaietan, pentsioak ez ziren proportzio berean eguneratu. Pentsioen erosahalmenean honek izaniko eragina neurtzeko, bi adierazleon bilakaera metatua aztertu behar dugu (bigarren grafikoa). Kasu honetan, pentsionistek 2011. urtetik 2024. urtera izaniko erosahalmena iraunkorra zein etengabea izan dela ondorioztatzen dugu (bi ardatzen artean gelditzen dena litzateke pentsiodunek galdutako erosahalmena).

PENTSIOAK ETA KPIAREN BILAKAERA NAFARROAN
(2011-2024)



PENTSIOEN EROSAHALMENAREN BILAKAERA NAFARROAN
(2011-2024)




- **2008. urtetik Nafarroako soldatek erosahalmena irabazi dute, batez besteko soldatak 2.830 € irabazita.** Kasu honetan, soldata errealak eta teorikoak (KPIren igoera proportzionala aplikatuta) izaniko bilakaera aztertu dugu, aldagai ezberdinen arabera, soldatek eurotan izaniko bilakaera ezagutzeko. Grafikoa aurkezten ditugun datuak zorrotzago aztertuta, batez besteko joerak herritar guztioi berdin eragiten ez digula ikus dezakegu. Izan ere, errenta apalenek 2008tik 4.708 € galdu dituzte. Sexu-genero aldagaia kontutan hartuz, emakumeen* batez besteko soldatak 956 €ko galera izan zuen 2023an, baina emakumeen* artean soldata apalenek 4.061€ko galera izan zuten eta gizonen artean are handiagoa, 19.208 €takoa zehazki. Hala nola, gazteen artean soldatek erosahalmena galdu dute. Kontrako joera izan dute soldata altuenek, emakumeen soldatek* erosahalmenean 31.363 €ko eta gizonenek 12.868 €ko irabaziak izan baitituzte.

Beraz, 2008. urtetik errenta altuenek erosahalmena irabazi dute Nafarroan, bereziki errenta altuena duten emakumeen* artean. Azken urteetan Espainiako Estatuan egon den LGSren igoerak, 2008. urtetik erosahalmenean galera handienak zituztenen galerak murriztea eta aldea zerbait txikitzea ekarri du. Batez besteko soldataren igoeran LGSren igoerak inpaktu zuzena izan arren (kopurutan igoera txikia, baina langile askori eragiten diona), errenta baxu zein altuenen arteko arrakalak adierazten du soldata altuenak direla gehien igo direnak eta inpaktu handiena izan duena batez bestekoaren

kalkuluan (kopurutan igoera handia, baina langile gutxiri eragiten dio). Beraz, gutxiengo baten soldata da nabarmen igo dena eta erosahalmenean gaitasun handiena pilotzen ari dena. Adibide bat jarriko dugu, batez besteko soldata igoeraren atzean dagoen arrakala ulertzen lagunduko duelakoan: 2008tik errenta apalena duten langileen erosahalmena berreskuratzeko, 4 hilabeteko soldata ordaindu beharko zitzairen, errenta altuenek, batez beste, 2008. urtetik irabaziak (922 €) izan dituzten bitartean.

- Era berean, errenten osaketan aldaketak izan dira. Gehiengoan jatorria lan errentak izan arren, akzio, etxebizitza edota lokalen salmentatik eratortzen diren errenta patrimoniaiek familien errenten gero eta zati handiagoa suposatzen dute. Gauza jakina da errenta altuenak dituzten familiak direla errenta mota hauen jabe. Beraz, lan eta kapital errenten arteko arrakala handitzen ari da, aberastasunaren banaketa ez-orekatua gauzatuz eta honek herrialde barneko desberdintasun sozialen areagotzea ekarri du, jarraian ikusiko dugun bezala

EROSAHALMENAREN BILAKAERA EUROTAN (NAFARROA, 2008-2023)




Iturria: Espainiako Estatistika Institutua (INE). Soldata Egiturari buruzko Inkesta.


Aberastasunaren banaketa

- Aberastasuna modu justuan banatzeko, fiskalitateak ez du berezkoa duen funtzio birbanatzailea betetzen

2010 urtetik aurrera Sozietateen gaineko Zergaren bitartez BPGrekiko biltzen den dirua Europar Batasunaren batez bestekoaren oso azpitik dago. Enpresen mozkinen zergapetzeak aberastasunaren banaketan duen birbanaketa funtzioa izateari utzi zion. Azken urteetan txikitzen ari den arren, aldeak handia izaten jarraitzen du.



Errentaren arabera biltzen den zergan ere (PFEZ), aldea handia da Europar Batasunarekiko. Aipatu beharra dago 2008 urtetik kapital errentei Nafarroan ezarritako dualitateagatik² dagoela hainbesteko aldea.




Beraz, langile klasea gehiago zergapetu gabe aberastasuna modu justuan banatzeko, lan errentek zerga bidez egiten duten ekarpena kapital errentek egin beharko lukete, errenta apalenen eta altuenen arteko arrakalak handia izaten jarraitzen baitu.

- **Desberdintasun adierazleak inoizko balio altuenetan.** Lehen aipatu bezala, batez besteko soldaten igoerak ez du ekarri desberdintasun sozialak gutxitzea; aitzitik, Nafarroan ezberdintasun sozialak inoizko handienak dira. Politika publikoek ez dute lortu desberdintasun egoera aldatzea, eta egoera honen atzean dauden bestelako faktoreak sakon aztertu daitezkeen arren, patronalaren aldetik egoniko erasoak zein enplegu suntsiketak eragin zuzena izan dutela esan dezakegu.
 - Batetik, lurralde barneko errenten arteko ezberdintasunak neurtzen dituen GINI indizea dugu (indize honen balio altuek gero eta desberdintasun sozial gehiago daudela adierazten dute). 2019. urtera arte beheranzko joera nagusi izan bazen ere, pandemia garaian harturiko neurriek desberdintasunak areagotu egin zituzten, eta 2024. urtera arte handitzen jarraitu dute. EAErekiko alderaketa eginez, 2023. urtean GINI indizea parekoa zen bi lurraldeetan, baina abiapuntua oso bestelakoa zen. Izan ere, Nafarroa desberdintasun txikiagoko egoera batetik abiatzen baitzen (2013an GINI indizea EAEn 29,5koa eta Nafarroan 28,3koa zen). Azken urtean, aldiz, GINI indizeak behera egin du EAEn (29,1), Nafarroan gora egin duen bitartean, 30,7an kokatuz.


2 008ko zerga erreformaz geroztik kapital errentak ez dira lan errenten oinarri berdinarekin kalkulatu, eta zergapetze tasa jaisten zaie. Sistema dual bat sortzen da horrela, lan eta kapital errentak ezberdintzen dituen.

GINI INDIZEAREN BILAKAERA (NAFARROA, 2013-2024)



- Bestetik S80S20 koefizientea dugu, zeinak diru-sarreratan dagoen ezberdintasuna adierazten digun, horretarako konparaketa eginez batez besteko errenta altuena duen herritarren %20 eta errenta baxuena duten %20aren artean. Adierazle honen joera GINI indizearen berdina da, 2024. urtean inoizko baliorik altuena izan baitu. Gainera, 2020. urtetik goranzko joera izan du. Beraz, errenta altuenak dituen biztanleriaren %20aren sarrerak errenta baxuenak dituen biztanleriaren %20arenak baino 5,5 aldiz handiagoak dira (2013an 4,5a zen bitartean). Kasu honetan ere, EAEn indize hau jaitsi den bitartean (2013an 5,2 – 2024an 4,7), Nafarroan handituz joan da.


S80S20 KOEFIZIENTEAREN BILAKAERA (NAFARROA, 2013-2024)



- **Pobrezia egoerak ere gora egin du.** Maiatzean kaleratutako Hego Euskal Herriko Ikusmiran-en aztertu genuen bezala, AROPE tasaren bilakaera goranzkoa izan da Nafarroan 2019. urtetik, eta 2023. urtean %17,2an kokatu da (2015. urtean baino 3,3 puntu goitik edo %23,7 handiagoa). Beste modu batera esanda: Nafarroako biztanleriaren %17,2 pobrezia arriskuan dago, 115.728 herritar, hain zuzen ere. Pobrezian dauden herritarrek ez dute profil bakarra, baina behean aztertutako irizpide guztietan honakoa errepikatzen da 2023. urtean: lehen aldiz, gizona emakumearen* gainetik kokatzen da pobrezia tasetan eta gutxienez 18 urtetik beherako kide bat duten bizi unitateek dute tasarik altuena.
- Jarraian, AROPE tasak barnebiltzen dituen 3 irizpide adierazgarrien 2023. urteko balioak aurkezten ditugu:
 - Nafarren %13,8a pobrezia arriskuan dago (2008an baino 7,9 puntu gehiago)
 - Pobrezia larrian, aldiz, herritarren %7,7a bizi da (2008an baino 5,7 puntu gehiago)
 - Pentsionisten %28a pobrezia arriskuan dagoen atalasearen azpitik bizi da (pobrezia arriskuaren atalasea urtean 10.990€ko da –785 € 14 pagatan- eta pobrezia larriaren atalasea urteko 7.322 €koa da – 523 € 14 pagatan-).
 - Gabezia material eta sozial larrian nafarren %6,2a bizi da (13 itemetatik 7 lortzeko ezintasuna dutenak). Nafarroaren kasuan, jarraian agertzen diren itemak dira gehien errepikatzen direnak:
 - Aurreikusi gabeko gastuei aurre egiteko ezintasuna %27,1 (2008an %20,3).


- Etxetik kanpo ezin oporretan joan urtean gutxienez aste batez %24,8 (2008an %19,2).
 - Altzaru hondatuak edo zaharkituak ordezkatzeko ezintasuna %18,2.
 - Neguan ezin du etxebizitza tenperatura egokian mantendu %12,3 (2008an %2,9).
- 0 - 64 urte eduki eta enplegu intentsitate-baxuko etxe unitate batean bizi den herritar kopurua da zertxobait jaitsi den bakarra, %7,9an kokatuz. Dena den, lan merkatuan prekaritatea zein ezegonkortasuna nagusitzen ari diren honetan, eta aurretik landu ditugun adierazleen arabera desberdintasunak handitzen ari direla ikusita, enplegu intentsitateaz gain, enpleguaren ezaugarritzean jarri beharko genuke arreta, gero eta nabarmenagoa baita bizitza duina bermatzeko diru-sarrera nahikoak ez dituela bermatzen.

AROE TASAREN BILAKAERA (NAFARROA, 2015-2023)



- Urtez urte, gero eta herritar gehiago kokatzen da errenta baxueneko mailan (edo pertzentilean). Enplegu intentsitateak adieraz dezakeena osatu dezakeen adierazlea dugu hauxe, errenta baxuenean dagoen herritarren bilakaera. Zentzu horretan, 2016. urtetik kopurua ia etengabe handituz joan da, 2023an herritarren %10,1a izanik errenta baxueneko mailan dagoena.


ERRENTAREN LEHEN DEZILEAN DAUDEN HERRITARREN BILAKAERA (NAFARROA, 2008-2023)




Etxebizitza eskubidea, eskubide izatetik gero eta urrunago

Zalantzarik gabe, Nafarroako langileon lan- eta bizi-baldintzak aztertzen dituen Ikusmiran honetan etxebizitzaren gaia ere landu behar zen. Izan ere, lan-baldintzetan sendotzen ari den prekaritate zein ezegonkortasun egoerarekin batera, etxebizitza da langileon prekaritatean eragin handiena duen aldagaia, herritar guztion eskubidea beharko lukeena etagutxi batzuen mozkin bilakatu dena.

- Etxebizitzaren prezioak igoera geldiezina izan du 2015. urtea erreferentziaz hartuta. Jarraian agertzen den grafikoan, jabetzan eskuratzen den etxebizitza berriak zein bigarren eskukoek izaniko igoera esponentziala agertzen du. Kasu honetan, azpimarragarria iruditu zaigu bi aldagaiok izan duten goranzko joera beretsua.



- Alokairuzko m²-aren prezioak igoera esponentziala izan du 2014. urtetik. Jabetzan eskuratzen den m²-aren prezioak 2012. urteko higiezinaren boom-eko maila berreskuratu du, 2016–2021 urteen artean prezioak baxuago mantendu arren (adi! Baxuago mantentzeak ez du merke esan nahi). Alokairuaren joera, aldiz, etengabe goranzkoa izan da, eta 2014. urteko m²-aren prezioa ia bikoiztu egin da 2025ean. 2012an lehertu zen finantza krisiak etxebizitza krisia ekarri zuen eta datuek erakusten dute alokairua, irtenbide eraginkor gisa sendotu ordez, mozkinak lortzeko bitarteko bilakatzeko urratsak eman direla.



- Nafarrek, batez beste, alokairura bideratzen dute soldata gordinaren %38,4a. Azken datuak 2023. urtekoak badira ere (INEk publikatzen duen soldata egiturari buruzko inkesta), aurreko grafikoak eta soldaten bilakaera ikusita, soldataran gero eta proportzio handiagoa bideratzen dute nafarrek alokairua ordaintzera. Emakumeen* kasuan, alokairura bideratzen den soldata gordinaren proportzioa handiagoa da, %42,4, alokairua berbera izan arren, emakumeon* batez besteko soldata baxuagoa delako.

HILEAN BATEZ BESTE, ALOKAIRURA BIDERATZEN DEN SOLDATA GORDINAREN PROPORTZIOA (NAFARROA, %)					
	€/m2	Batez besteko alokairua	Orokorrean %	Emakumeak %	Gizonak %
2020	8,5	680	36,9	42,9	33,5
2021	8,9	712	38,0	43,6	34,7
2022	9,3	744	39,1	43,4	35,9
2023	9,7	776	38,4	42,4	35,1
2024	10	800			
2025	10,5	840			

Iturria: guk egina, INEren soldata egiturari buruzko inkesta, ANPE Nafarroa eta Idealista atariko datuetatik abiatuta

Osasun sistema publikoa ahultzen jarraitzen duten erabaki politikoek indarrean jarraitzen dute. Osasun eskubidea herritar guztiontzat bermatzeko, zerbitzu publikoek ezinbesteko funtzioa betetzen dute, edo bete beharko lukete. Izan ere, kapitalak gure osasuna gero eta gehiago baliatzen du irabaziak metatzen jarraitzeko eta eskubidearen bermea errenta mailaren arabera gauzatzeko, unibertsaltasunetik urrun.

- 2019tik jarduera propioak %7,9 murriztu dira, itundutakoak %80,4 handitu diren bitartean. Kasu honetan, argi gelditzen da osasun larrialdi garaian osasun zerbitzuak murrizteko harturiko erabakiak egiturazkoak bilakatzeko baliatu dela, osasun sistema publikoa ahulduz.

KANPO KONTSULTEN JARDUERAREN BILAKAERA, 2019 -2023					
	2019	2020	2021	2022	2023
Jarduera propioa	942537	716819	829582	892795	873736
Itundutako jarduera	4118	5711	7105	6536	7428

Iturria: SISNA

NAFARROAKO ESKUALDEEI BEGIRADA

Lehenik eta behin, adierazi nahi dugu eskualdeen arteko alderaketa adierazle ezberdinen arabera egin daitekeela; beraz, ariketa politiko bat da, gure kasuan, LAB sindikatuak bultzatzen duen eredu sozioekonomikoaren ardatzen arabera eginikoa. Bestetik, publikoak diren datuak ditugu iturri eta ondorioz, ez ditugu guk nahi genituen guztiak eskuratu. Behin hau esanda, jarraian agertzen diren datuen esangura azpimarratu behar dugu; izan ere, langile klasearekiko zein lurraldearekiko adierazgarriak dira.


Ondorio nagusi gisa, eta arestian adierazi bezala, Nafarroa barnean ezberdintasunak handitzen ari dira lan eta kapital errenten artean, eta horrek eskualdeetan inpaktu zuzena du.

Nafarroako batez besteko soldata gordinetik behera kokatzen dira eskualde guztiak, Leitzalde eta Iruñerria izan ezik

Jakin badakigu soldata gordinari zergak kendu behar zaizkiola, hilabeteen erabilgarri dagoen diru sarrerak zenbatu ahal izateko. Zentzu horretan, gehiago duena gehiago zergapetu beharko litzateke edota duen kapitalaren arabera. Indarrean dagoen politika fiskalak aberastasunaren banaketa orekatua bermatzeko mekanismo eraginkorrak ez baditu ere, soldata gordina baliatuko dugu eskualdeen arteko lan errenten artean dauden joerak aztertzeko. Era berean, esan behar dugu eskuragarri ditugun datuetatik egokiena dela.

Nabarmentzekoa da Iruñerria eta Leitzalde izan ezik, gainerako eskualdeetako soldata gordina Nafarroako soldata gordinetik behera kokatzen dela, Erribera izanik alde handiena erakusten duena. Beraz, ondorioztatu daiteke bi eskualde hauetan pilatzen dela aberastasunaren zatirik handiena, arrazoi ezberdinak tarteko. Arrazoen artean dago Iruñerrian industria sektoreko enpresa handien egoitza nagusiak egotea (adibidez Gamesa eta Volkswagen), bertan langile askok lan egiten dute, eskualdeetan kokatuak dauden enpresa txikiagoetan baino lan baldintza duinagoekin. Nafarroako industriaren zati garrantzitsuena Iruñerrian kokatzen da.

SOLDATA GORDINA ESKUALDEKA NAFARROAN (2023)



Soldata arrakala, sexu-generoari dagokionean

Soldata arrakala egiturazkoa da, eta Nafarroa osatzen duten eskualde guztietan gizonak emakumeek* baino soldata altuagoak dituzte. Soldata arrakalaren baitan nagusitzen den joera soldata gordinaren berdina. Izan ere, soldata arrakala Erriberan da txikiena, soldata gordina ere baxuena den eskualdean. Beraz, lan errentak gero eta altuagoak izan, sexu-genero arrakala handiagoa da, Baztan-Bidasoan edota Iruñerrian gertatzen den bezala; aldiz, lan errentak baxuagoak diren eskualdeetan arrakala txikitzen egiten da, soldata baxuenaren eta altuenaren arteko aldea nabarmen txikiagoa delako.

SOLDATA ARRAKALA ESKUALDEKA	
	Soldata arrakala
Zangozeria	22,32 %
Baztan-Bidasoa	21,15 %
Sakana	20,71 %
iruñerria	19,07 %
Izarbeibar-Novenera	18,76 %
Erdialdea	18,45 %
Nafarroa	18,38 %
Pirinioaurrea	18,28 %
Pirinioak	17,61 %
Larraun-Leitzaldea	17,60 %
Erribera	17,10 %
Lizarraldea	16,79 %
Erriberagoiena	16,58 %

Iturria: NASTAT

28 Pobrezia arriskua eskualdeka

Pobrezia arriskuari dagokionean, Nafarroa bitan zatitzen da, lurraldearen hegoaldean pobrezia arrisku tasa altuenak kokatuz, eta alderantziz. Pobrezia arrisku tasarik altuenak Tuter eta Erriberan aurkitzen dira, pobrezia larrirako arrisku tasarik altuenak ere bertan kontzentratzen direlarik. Bestaldean, Pirineoak, Baztan-Bidasoa edota Nafarroa Ipar-Ekialde eskualdeak kokatzen dira, Nafarroako pobrezia tasa orokorretik behera.

NAFARROAKO ESKUALDEAK, POBREZIA TASARAREN ARABERA, 2023		
	Pobrezia arrisku tasa	Pobrezia larrirako arrisku tasa (%40)
Tuteraldea	29,85	16,09
Argako erribera	26,42	13,44
Ebroko erribera	29,61	17,04
Lizarraldea	24,15	14,02
Tafallaldea	20,66	10,50
Zangotza	18,44	9,27
Pirineoak	19,75	11,34
Baztan-Bidasoa	18,87	10,47
Ipar-mendebaldea	17,99	9,24
Erdialdea	19,29	10,55
Nafarroa	21,80	11,88

Desberdintasun sozialak, lurraldearen arabera (GINI eta s80/s20)

Arestian aipatu dugu Nafarroaari desberdintasun sozialak areagotzen ari direla azken urteetan. Bada, desberdintasun sozial hauek herrialde barnean ere ikusgarriak dira. Pobrezia arrisku tasei jarraiki, herrialdearen hegoaldean kokatzen diren eskualdeetan aberastasunaren banaketa gero eta desorekatuagoa da, desberdintasun sozialak areagotuz.

NAFARROAKO ESKUALDEAK, DESBERDINTASUN SOZIALEN ARABERA (2023)		
	GINI indizea	S80/S20 koefizientea
Tuteraldea	32,30	7,13
Argako erribera	31,93	7,00
Ebroko erribera	32,11	10,18
Lizarraldea	32,94	8,21
Tafallaldea	29,66	6,13
Zangotza	29,26	5,84
Pirineoak	31,96	7,25
Baztan-Bidasoa	29,03	6,48
Ipar-mendebaldea	27,75	5,30
Erdialdea	30,08	6,39
Nafarroa	30,85	6,80

Iturria: NASTAT

Kasu honetan, Pirineoak eskualdean jarri behar dugu arreta, izan ere, pobrezia arrisku tasa oso txikia izan arren, aberastasunaren banaketan arrakala handia dago, desberdintasun sozialek herrialdean duten presentzia baino handiagoa.

